

5.600 sinadura baino gehiago bildu ditugu Aiaraldean osasun sistema publiko eta duinaren alde

Datorren abenduaren 12an entregatuko dira sinadura guztiak Gasteizen, Osakidetzaren zerbitzu zentraletan.

5.646 sinadura bildu dira guztira Aiaraldean osasun sistema publiko eta duina eskatzeko. Sinadura guztiak fisikoki eskuratu dira dozenaka boluntariok eskualdeko osasun zentro, lantegi, hezkuntza zentro, merkatu zein kaleetan jarritako postuen bidez. Ekimenak oso harrera ona izan du: eskualdeko biztanleria osoaren %13,2ak eman du sinadura, eta ehuneko hori handiagoa da, sinadurak adinez nagusiko pertsonak eman dituztela kontuan hartuta.

Iragan urriaren 7an abiatu zen sinadura bilketa. Ekimen honekin, ondorengo eskakizun zehatzak egin nahi zaizkio Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailari:

1. Laudio eta Amurrioko Etengabeko Arreta Guneetako ordutegi eta txanda guztietan bermatzea beharrezkoak diren espezialitate eta kategoria guztietako osasun profesionala, baita medikuak ere. Era berean, eskualdean dauden Osakidetzako gainerako azpiegiturretan ere behar diren giza baliabide guztiak uneoro bermatzea eskatzen dugu.
2. Laudioko anbulantzia medikalizatuko (SVA) txanda guztietan beharrezkoak diren osasun profesional guztiak bermatzea, medikuak barne.
3. Osakidetzaren oinarritzako asistentzia-zerbitzuak bermatzea exijitzen dugu, herritarrok zerbitzu horietarako eskubidea baitugu.
4. Eskatzen dugu Buru Osasunerako Zentroko arreta arina izatea, psikiatra zein psikologoagatik artatuak izateko itxaron zerrendak murriztuz. Buru osasun arazoak dituzten pertsonak eskubidea dute kalitatezko arreta jasotzeko.

Sinaduren entrega abenduaren 12an

Datorren abenduaren 12an Gasteizera joko dugu, sinadurak Osakidetzaren zerbitzu zentraletan entregatzeko (Araba Kalea, 45). 12:00etan geratu gara bertan. Eskualdeko herritar guztiei luzatzen diegu bertaratzeko gonbita.